



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2007ko maiatzaren 10a, osteguna.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

HASIERA-ORDUA: 19:10 **AMAIERA-ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz,
M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba
Solabarrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian (3. puntutik
aurrera), Asier Yeregi Campos, Eugino Cotado Iturain,
Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta
Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2007ko urtarrilaren 30eko eta otsailaren 27ko ohiko bilkuren eta 2007ko ezohiko bilkuraren akten zirriborroak.
- 2.- Onartzea, egoki bada, “Orioko Plangintzaren Antolaketa Arauen Berrikusketaren” testu bateratua.
- 3.- Onartzea, egoki bada, “Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren” testu bateratua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 2/2007 zenbakidun espedientea, kreditu gehitzearen modalitatean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 3/2007 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako Udalek sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Urteta Zabortegia Kudeatzeko eskakizun eta baldintza berriei erantzun eta zabortegia itxi, zigilatze eta, etorkizunean, mantentze-lanak egiteko behar den fondoa bermatzeko, eta Alkatetzari ahalmena ematea sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak eta Orioko Udalak sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Telelaguntza Zerbitzuaren Kudeaketa-lanen esleipena formalizatzeko, eta Alkatetzari ahalmena ematea sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Telelaguntza Zerbitzua arautzen duen Udal-Araudia.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak eta Orioko Udalak sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Orioko Hirigune Historikoko oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren 1. eta 2. Separatak



finantzatu eta gauzatzeko, eta Alkatetzari ahalmena ematea sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

- 10.- Esleitzea, egoki bada, “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako erregimen bereziko 21 eta 18 udal etxebizitza tasatuen exekuzio” obran kontratazioa.
- 11.- Esleitzea, egoki bada, “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan proiektatutako babes ofizialeko 36 etxebizitzaren exekuzio” obraren kontratazioa.
- 12.- Onartzea, egoki bada, Iturriaga jauregia birgaitzeko lanen oinarrizko eta exekuzio proiektua. Iturriaga jauregia Orioko Kale Nagusia 17an dago eta proiektua Jaime Abalos arkitektoak idatzi du. Proiektuaren kontratazio bidezko exekuzioaren aurrekontua 580.051,86 eurokoa da (BEZ barne).
- 13.- Onartzea, egoki bada, Iturriaga jauregian (Kale Nagusia, 17) Euskal Herriko Done Jakue bideari buruzko interpretazio zentro bat sortzeko proiektu museografikoa. Proiektua “Sormen Creativos, SA” merkataritza entitateak idatzi du eta bere aurrekontua (diseinua, gauzatzea eta muntaketa barne hartuta) 474.815,84 eurokoa da (BEZ barne).

Esan-Eginak

1.- IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO URTARRILAREN 30EKO ETA OTSAILAREN 27KO OHIKO BILKUREN ETA 2007KO EZOHIKO BILKURAREN AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2007ko urtarrilaren 30eko eta otsailaren 27ko ohiko bilkuren eta 2007ko ezohiko bilkuraren akten zirriborroak.



2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO PLANGINTZAREN ANTOLAKETA ARAUEN BERRIKUSKETAREN” TESTU BATERATUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

IKUSIZ Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatu Kontseiluak, 2006ko abenduaren 26an egindako bilkuran, honako hau erabaki zuela: behin betikoz onartzea "Orioko Plangintzaren antolaketa arauen berrikusketa", hainbat baldintza jarrita (baldintzak aipatutako erabakiaren xedapenen lehen zatian aipatzen dira; foru erabakia 2007ko urtarrilaren 11ko GAOn argitaratu da, 8. zenbakian).

Orioko udalerriko plangintza orokorrerako tresna horri dagokion dokumentazioa Udalbatzarrak behin-behingo onartutakoa da, honako dokumentuen arabera: 2005eko abuztuan egindako dokumentua; 2005eko uztailean egindako ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratuko ikerketa; Udalbatzarrak 2006ko maiatzaren 30eko bilkuran onartutako dokumentazio zuzendua, Kostako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena zuena; eta 2006ko urriaren 26ko udalbatzarrak 4. arearako (Aita Lertxundi) onartutako aldaketak.

IKUSIZ 2006ko abenduaren 26ko foru erabakiaren xedapenen bigarren zatian honako hau adierazten dela: Diputatu Kontseiluak ez diela behin betiko onarpena eman Orioko Plangintzaren Antolaketa Arauei honako bi toki hauei dagokienez: S-17 "Zelai" etxebizitza sektorea eta inguru hori eta Txanka-Hondartza bidea lotzen dituen errepide berria.

IKUSIZ 2006ko abenduaren 26ko foru erabakiaren xedapenen hirugarren zatian honako hau adierazten dela: Aizperroko industrialdearen behin betiko onarpenak indarra izateko ezinbesteko baldintza dela ingurumen inpaktoaren ebaluazio bateratuko behin betiko txostenean ezarritakoa betetzea, hau da, alternatiben analisia prestatu eta aurkeztea, 183/2003 Dekretuaren eranskinaren 4. atalak ezarritakoaren arabera; analisi horrek kontuan hartu beharko ditu jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaria asetzeko bestelako alternatiba posibleak, azkenean gaiari ematen zaion irtenbidea optimizatu eta justifikatzeko.

IKUSIZ 2006ko abenduaren 26ko foru erabakiaren xedapenen laugarren zatian honako hau adierazten dela: Orioko Plangintzaren antolaketa arauen testua



argitaratu eta indarrean jartzeko, Orioko Udalak dokumentu bat onartu eta bidali beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, espedienteko erabaki eta agiriak bateratuz eta aipatutako foru erabakiaren xedapenen lehen zatian ezarritako baldintzak betez.

KONTUAN HARTUZ, udal arkitektoak eta udal idazkariak emandako txostenen arabera, "Orioko Plangintzaren antolaketa arauen berrikusketa"ren espediente urbanistikoaren dokumentu bateratuan (Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak egina) espedienteko erabaki eta agiria bateratzen direla eta arrazoizko moduan betetzen direla 2006ko abenduaren 26ko foru erabakiaren xedapenen lehen zatian ezarritako baldintzak.

KONTUAN HARTUZ, horren ondorioz eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-c artikuluan ezarritakoaren arabera, udal idazkariak Udalbatzarrari proposatzen diola "Orioko Plangintzaren antolaketa arauen berrikusketa"ren espediente urbanistikoaren dokumentu bateratua onartzea (onartzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-ll artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzakideen gehiengo absolutuak eman behar du aldeko botoa; kasu honetan, beraz, gutxienez, sei aldeko boto behar dira).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta udal arkitektoak eta udal idazkariak emandako txostenak ikusita eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko maiatzaren 8an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1.- ONARTZEA, "Orioko Plangintzaren Antolaketa Arauen Berrikusketaren" testu bateratua, Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak egina.

2.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiari "Orioko Plangintzaren Antolaketa Arauen Berrikusketaren" testu bateratua, Udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiriarekin batera, Orioko plangintza orokorrerako tresnak biltzen dituen hirigintza arauen testua argitara dezan eta indarrean jar dadin.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, "ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN" TESTU BATERATUA.



19:16 orduak direla, Ainhoa Leunda San Sebastian zinegotzia bertaratzen da udalbatzar honetara.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez duela gai honen bozketan parte hartuko, interes pertsonal eta zuzena duelako aztergai.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

IKUSIZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Sustapeneko Foru Diputatuak Foru Agindua eman zuela 2007ko otsailaren 22an, (2007ko martxoaren 6ko GAO n argitaratua, 46. zenbakian) behin betikoz onartuz Orioko Hirigune Historikoa birgaitzeko Plan Berezia, Foru Aginduaren xedapenen lehen zatian ezarritako baldintzekin.

Behin betikoz onartutako dokumentazioa honako hau da: 2004ko abenduko dokumentua, ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuko azterketarekin batera; Aritzaga 7ko etxeari dagokion fitxa urbanistikoa (2006ko urtarrilaren 31ko udalbatzarrean onartua); eta 2006ko martxoko dokumentazio osagarria, Kostetako Zuzendaritza Nagusiaren txostenari egokitzeko prestatua.

IKUSIZ aipatutako Foru Aginduaren xedapenen bigarren zatian honako hau adierazten dela: Orioko Hirigune Historikoa birgaitzeko Plan Berezia argitaratu eta indarrean jartzeko, Orioko Udalak dokumentu bat onartu eta bidali beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, espedienteko erabaki eta agiriak bateratuz eta aipatutako Foru Aginduaren xedapenen lehen zatian ezarritako baldintzak betez.

KONTUAN HARTUZ, udal arkitektoak eta udal idazkariak emandako txostenen arabera, Orioko Hirigune Historikoa birgaitzeko Plan Bereziaren espediente urbanistikoaren dokumentu bateratuan (Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak egina) espedienteko erabaki eta agiria bateratzen direla eta arrazoizko moduan betetzen direla 2007ko otsailaren 22ko Foru Aginduaren xedapenen lehen zatian ezarritako baldintzak.

KONTUAN HARTUZ, horren ondorioz eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-c artikuluan ezarritakoaren arabera, udal idazkariak Udalbatzarrari proposatzen diola Orioko Hirigune Historikoa birgaitzeko Plan Bereziaren espediente urbanistikoaren dokumentu bateratua onartzea (onartzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-II artikuluan ezarritakoaren arabera, bertaratutako udalbatzakideen gehiengo sinpleak eman behar du aldeko botoa).



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta udal arkitektoak eta udal idazkariak emandako txostenak ikusita eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko maiatzaren 8an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1.- ONARTZEA, Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren testu bateratua, Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak egina.

2.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiari Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren testu bateratua, Udalbatzarraren erabaki honen ziurtagiriarekin batera, Orioko Hirigune Historikoa garatzeko tresnak biltzen dituen hirigintza arauen testua argitara dezan eta indarrean jar dadin.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN KREDITUEN ALDAKETARAKO 2/2007 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHITZEAREN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta idazkari-kontuhartzaileak emandako txostenaren eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2007ko apirilaren 27an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldatetarako 2/2007 zenbakidun espedientea, kreditu gehitzearen modalitatean, **2.068.827,36,-€**-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:



- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzaitza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 25ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN KREDITUEN ALDAKETARAKO 3/2007 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta idazkari-kontuhartzaileak igorritako txostenaren eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2007ko apirilaren 27an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

1. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 3/2007



zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean, **1.212.248,00,-** €-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzaitza.
- b) *Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 25ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d) *Impugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAK ETA AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ ETA ZUMAIKO UDALEK SINATU BEHARREKO LANKIDETZARAKO HITZARMENAREN TESTUA, URTETA ZABORTEGIA KUDEATZEKO ESKAKIZUN ETA BALDINTZA BERRIEI ERANTZUN ETA ZABORTEGIA ITXI, ZIGILATZE ETA, ETORKIZUNEAN, MANTENTZE-LANAK EGITEKO BEHAR DEN FONDOA BERMATZEKO, ETA ALKATETZARI AHALMENA EMATEA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2007ko apirilaren 27an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako Udalek sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Urteta Zabortegia Kudeatzeko eskakizun eta baldintza berriei erantzun eta zabortegia itxi, zigilatze eta, etorkizunean, mantentze-lanak egiteko behar den fondoa bermatzeko, eta Alkateari **AHALMENA EMATEA** sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE POLITIKARAKO DEPARTAMENTUAK ETA ORIOKO UDALAK SINATU BEHARREKO LANKIDETZARAKO HITZARMENAREN TESTUA, TELELAGUNTZA ZERBITZUAREN KUDEAKETA-LANEN ESLEIPENA FORMALIZATZEKO, ETA ALKATETZARI AHALMENA EMATEA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gizarte-Ongizate eta Osasun Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 13an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak eta Orioko Udalak sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Telelaguntza Zerbitzuaren Kudeaketa-lanen esleipena formalizatzeko, eta Alkateari **AHALMENA EMATEA** sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.



8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TELELAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL-ARAUDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gizarte-Ongizate eta Osasun Batzorde Informatzaileak 2007ko otsailaren 13an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

- 1. HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, Telelaguntza Zerbitzua arautzen duen Udal-Araudiari.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, herria jakinaren gainean jartzen da, interesdunek 30 laneguneko epean beren erreklamazio eta oharrak egin ditzaten Udalaren aurrean. Udal Araudi hori interesatuen eskuerara egongo da Udaletxeko Idazkaritzan lanegun guztietako lanorduetan (astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara); adierazitako epean akordioari ez bazaio erreklamaziorik edo oharririk egiten behin betiko onartutzat joko da aipatutako Udal Araudia.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUAK ETA ORIOKO UDALAK SINATU BEHARREKO LANKIDETZARAKO HITZARMENAREN TESTUA, ORIOKO HIRIGUNE HISTORIKOKO OINEZKOEN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAREN 1. ETA 2. SEPARATAK FINANTZATU ETA GAUZATZEKO, ETA ALKATETZARI AHALMENA EMATEA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko apirilaren 26an emandako diktamenaren bitartez



egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak eta Orioko Udalak sinatu beharreko lankidetzarako hitzarmenaren testua, Orioko Hirigune Historikoko oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren 1. eta 2. Separatak finantzatu eta gauzatzeko, eta Alkateari **AHALMENA EMATEA** sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.

Obraren kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 117.170,08 eurokoa da (BEZ barne), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak obrak exekutatzeko egingo duen ekarpen ekonomikoa honako hau izango da: obraren adjudikazioaren prezioa, oso-osorik.

Lankidetzarako hitzarmenaren testua 2007ko apirilaren 10eko GAOn (69. zenbakia) argitaratutakoa da.

10.- ESLEITZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO A.I.U.3-KO - HONDARTZA- U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B5 ETA 2B6 PARTZELETAN, HURRENEZ HURREN, PROIEKTATUTAKO ERREGIMEN BEREZIKO 21 ETA 18 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN EXEKUZIO” OBRAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako erregimen bereziko 21 eta 18 udal etxebizitza tasatuak exekutatzeko obraren kontrataziorako egin den tramitazioaren berri jakiten du. Obraren proiektu teknikoaren arabera egingo dira eta kontratazioa lehiaketa bidez adjudikatuko da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz. Lehiaketaren iragarkia GAOn argitaratu da, 2007ko martxoaren 12an (50. zenbakia).

Irekitako epearen barruan, zazpi lizitatzailerak aurkeztu dira lehiaketara:

1.- FONORTE, SA

2.- CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE, SL



- 3.- URAZCA, SA
- 4.- EGUZKI ERAIKUNTZAK, SL
- 5.- GUILLERMO IBARGOYEN, SA
- 6.- BRUES Y FERNÁNDEZ, SA
- 7.-ANTZIBAR, SA

Kontratazio mahaiak aho batez proposatu du obren kontratua EGUZKI ERAIKUNTZAK, SL sozietate merkantilari adjudikatzea, bera baita puntuaziorik altuena lortu duena, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera eta udal zerbitzu teknikoek emandako txostena kontuan hartuz.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko maiatzaren 8an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

- 1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2007ko apirilaren 16an egindako plikak irekitzeko egintza.
- 2.- **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** EGUZKI ERAIKUNTZAK SL sozietate merkantilari “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B5 eta 2B6 partzeletan, hurrenez hurren, proiektatutako erregimen bereziko 21 eta 18 udal etxebizitza tasatuen exekuzio” obren kontratazioa. Obren adjudikazioaren prezioa 3.401.500, 11 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).
- 3.- **ITZULTZEA** aurkeztutako behin-behinekofidantzak lehiaketan parte hartu duten lizitatzaileriei.
- 4.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau lehiaketan parte hartu duten lizitatzailerien guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, aplikagarri diren lege errekursoak adieraziz.



11.- ESLEITZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO A.I.U.3-KO - HONDARTZA- U.E.3.2.-REN ONDORIOZKO 2B4 PARTZELAN PROIEKTATUTAKO BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZEN EXEKUZIO” OBREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan proiektatutako babes ofizialeko 36 etxebizitzaren exekuzio” obren kontrataziorako egin den tramitazioaren berri jakiten du. Obrak proiektu teknikoaren arabera egingo dira eta kontratazioa lehiaketa bidez adjudikatuko da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz. Lehiaketaren iragarkia GAOn argitaratu da, 2007ko martxoaren 12an (50. zenbakia).

Irekitako epearen barruan, sei lizitatzailerak aurkeztu dira lehiaketara:

- 1.- FONORTE, SA
- 2.- URAZCA, SA
- 3.- EGUZKI ERAIKUNTZAK, SL
- 4.- GUILLERMO IBARGOYEN, SA
- 5.- BRUES Y FERNÁNDEZ, SA
- 6.-ANTZIBAR, SA

Kontratazio mahaiak aho batez proposatu du obren kontratua BRUES Y FERNANDEZ SA sozietate merkantilarik adjudikatzea, bera baita puntuaziorik altuena lortu duena, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera eta udal zerbitzu teknikoek emandako txostena kontuan hartuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko maiatzaren 8an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

- 1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2007ko apirilaren 16an egindako plikak irekitzeko egintza.



2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA BRUES Y FERNANDEZ SA sozietate merkantilaria “Orioko A.I.U.3-ko -Hondartza- U.E.3.2.-ren ondoriozko 2B4 partzelan proiektatutako babes ofizialeko 36 etxebizitzaren exekuzio” obren kontratazioa. Obren adjudikazioaren prezioa 2.857.421, 43 eurokoa da (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne).

3.- ITZULTZEA aurkeztutako behin-behinekofidantzak lehiaketan parte hartu duten lizitatzaileei.

4.- JAKINARAZTEA erabaki hau lehiaketan parte hartu duten lizitatzaile guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, aplikagarri diren lege errekurtsoak adieraziz.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ITURRIAGA JAUREGIA BIRGAITZEKO LANEN OINARRIZKO ETA EXEKUZIO PROIEKTUA. ITURRIAGA JAUREGIA ORIOKO KALE NAGUSIA 17AN DAGO ETA PROIEKTUA JAIME ABALOS ARKITEKTOAK IDATZI DU. PROIEKTUAREN KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIOAREN AURREKONTUA 580.051,86 EUROKOA DA (BEZ BARNE).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2007ko maiatzaren 8an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [11 baiezko boto]:

ONARTZEA, Iturriaga jauregia birgaitzeko lanen oinarrizko eta exekuzio proiektua. Iturriaga jauregia Orioko Kale Nagusia 17an dago eta proiektua Jaime Abalos arkitektoak idatzi du. Proiektuaren kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua 580.051,86 eurokoa da (BEZ barne).

13.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ITURRIAGA JAUREGIAN (KALE NAGUSIA, 17) EUSKAL HERRIKO DONE JAKUE BIDEARI BURUZKO INTERPRETAZIO ZENTRO BAT SORTZEKO PROIEKTU MUSEOGRAFIKOA. PROIEKTUA “SORMEN CREATIVOS, SA”



MERKATARITZA ENTITATEAK IDATZI DU ETA BERE AURREKONTUA (DISEINUA, GAUZATZEA ETA MUNTAKETA BARNE HARTUTA) 474.815,84 EUROKOA DA (BEZ BARNE).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak hartzen du hitza eta Udalbatzarrari proposatzen dio aipatutako proiektu museografikoaren onarpena mahai gainean uztea, proiektua osatu gabe baitago. Alkateak dio, besteak beste, proiektua ez dagoela teknikari gaitu batek izenpetua eta aurrekontua ez dagoela behar bezala xehetu eta zehaztua; eta, horren ondorioz, proiektua ezin dela, dagoen horretan, lizitazio publikoan jarri. Adierazten du, baita ere, Udaleko Kontuhartzaitzari agindu diola proiektua egin duen aholkularitza enpresari ez diru sarrerarik egitea.

Elena Legarra alkateordeak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du ez datorrela bat alkateak esandakoarekin, zeren eta proiektu horrek dagoeneko jaso baitu Turismo batzordearen aldeko diktamena eta, uste duenez, baita Hirigintza batzordearena ere; onartzen du proiektua osatu gabe egon litekeela, baina ez, inola ere, alkateak esan duen bezala, *ilegala* izatea. Elenak dio alkateak ez duela ondo jokatu, zeren eta, aldez aurretik esan izan balio proiektua osatu gabe zegoela, berehala hartuko baitzituen neurriak, behar bezala osatzeko, udalbatzarrak gaurko bilkuran onar zezan.

Alkateak erantzuten dio esanez, beharrezko egiaztapenak egin ondoren, gaur bertan jakin duela proiektu museografiko hori osatu gabe zegoela eta, beraz, ez duela denborarik izan proiektua osatzeko agindua transmititzeko. Bukatzeko, adierazten du legalitatearen printzipioari eutsiz jokatu duela jokatu duen bezala, eta Orioko herriaren baliabide ekonomikoak ahalik eta ondoen gestionatze aldera, zeren eta proiektu museografiko hori dagoen horretan onartzen bada eta lizitazio publikora ateratzen bada, aurrekontuan desbideraketa handiak izan baititzake.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du administrazioek legalitatearen printzipioa betetzearen alde dagoela erabat, baina kasu honetan kezka sortzen diola Turismo batzordeko buruak "hitzez lotuak" eduki zitzakeen diru laguntzak galtzeko posibilitateak, eta, beraz, bere jarduna zuzenduko duela —udal agintealdi honetan ez bada, hurrengoan— aipatutako proiektu museografikoaren onarpena defendatzera.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkuraren akta

2007/05/10

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**[7 baiezko boto: Etxeberria (EAJ), Olariaga (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), San Sebastian (EAJ), Leunda (EAJ) eta Yeregi (EAJ), eta, beraz, udalbatzarraren gehiengo absolutua; 3 ezezko boto: Cotado (EA), Legarra (EA) eta Azkue (EA); abstentzio bat: Rodriguez (PSE-EE-PSOE)]:

MAHAI GAINEAN UZTEA Iturriaga jauregian (Kale Nagusia, 17) Euskal Herriko Done Jakue bideari buruzko interpretazio zentro bat sortzeko proiektu museografikoa, **HARIK ETA** behar bezala idatzita dagoen arte. Onartua izateko, teknikari gaitu batek idatzi eta izenpetua izan behar du eta aurrekontua behar bezala zehaztu eta xehetua izan behar du.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN**.

ALKATEA

IDAZKARIA